

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren Urtea. Pamplona. Junio. 1967. Garagarrilla (Ekaina). Iruña. 16gn. zenbakia.

DIRECTOR: J. E. URANGA



## POPULORUM PROGRESSIO

*El Santo Padre Paulo VI ha dirigido a los Obispos, sacerdotes, religiosos, fieles y a todos los hombres de buena voluntad esta Encíclica titulada "Del progreso de los Pueblos".*

*Las partes más importantes de este documento pontificio son las siguientes:*

*Los pueblos necesitados llaman en su ayuda a los pueblos ricos y la Iglesia llama a cada nación que responda con amor a la llamada del hermano.*

*Es derecho de todo hombre liberarse de la miseria, asegurarse su medio de vida y subsistencia, la atención de su salud, seguridad de trabajo y salir de su ignorancia al paso que participar en las responsabilidades con entera libertad.*

*Los pueblos que recientemente han llegado a la independencia sienten la necesidad, además de su libertad política, de un crecimiento autónomo, digno, social además de económico y de ocupar el puesto que les corresponde entre las naciones. Las naciones colonizadoras tienen todavía bastante que aprender en este punto.*

*Si continúan como hasta ahora los moldes de la Economía mundial cada vez será mayor la desigualdad entre las naciones: Las ricas cada vez más ricas y las pobre más pobres.*

*El desarrollo no es sólo el fortalecimiento económico, sino el desarrollo del hombre, como tal hombre. No es la economía primero sino el hombre.*

*El hombre es miembro de la Sociedad en que vive, por esto no debe desarrollarse solamente un miembro, sino todos y cada uno de ellos.*

*Si la Tierra está hecha para procurar a cada uno los medios de subsistencia, todo hombre tiene derecho de encontrar en ella lo que necesita. Todos los demás derechos, incluido el de Propiedad y el de Comercio libre, a él le están subordinados. El derecho de propiedad no constituye para nadie derecho absoluto e incondicional; no debe de usarse con detrimento del bien común.*

*La industrialización es necesaria para el crecimiento económico y el progreso humano.*

*El Capitalismo liberal que considera el provecho como principal factor del progreso económico no puede ser aprobado.*

*El hombre precisa de sus organizaciones profesionales e instituciones culturales.*

*El hombre tiene necesidad de la familia.*

*El desarrollo integral del hombre no puede darse sin el desarrollo solidario de la Humanidad.*

*El desarrollo es el nuevo nombre de la Paz. La Paz se basa en la justicia y en la lucha contra la miseria.*

*Paulo VI termina con estas palabras: «A todos os invitamos para que contestéis a nuestro grito de angustia, en el nombre del Señor».*

Aita Saindu Paulo VI garrenak Elizari, kristauei eta mundu guziko borondate oneko gizon guzietan «Populorum Progressio», edo «Nazioen Aurrerapenaz, edo aintzinatzeaz» deitutako Agiri, edo Enziklika bat igorri die.

Ona emen Enziklika onen burutzapen eta gogoetarik premia aundikoenak:

Bear gorrian dauden Erriek, Erri beartsuek, oihu samin bat Nazio aberatsei egiten diote. Elizak ere Erri bakoitxari esaten dio bere anaiei laguntzeko.

Gizon guzien esku eta zuzenbide da ezbeharretik ateratzea, bizibide, eta azkuntza (azkurria) ziurki arkitzea, bere osasunari begira eta artatzea, lanpide iraugarria izatea, yakiteari buruzko mailla irixtea, eta eginkizunetan parte geiago artu ahal izatea.

Berriki askatu diran Erriek, beren esku jarrita dauden Naziaek bear dute, politikako aferetan bezala, beste egintzetan ere aunditu, aurreratu, eta gizonen arteko gauzetan eta ekonomietan geiagotu, munduko Nazioen artean nai duten mailla iristeko eta norbait izateko. Badute «zerbait» egiteko oraindik Nazio aundi eta aberatsek puntu ontan.

Ekonomiaren legeak uzten badira berez jarraitzen, desberdintasuna gero eta geiago aunditzen joanen da errien artean. Aberatsak gero eta aberatsagoak eta pobreak pobregokoak.

Aurreratzea, ezda ekonomia-gauzetan bizkortzea bakarrik, gizona gizon bezala aintzintatu bear da. Ezta Ekonomia lehenago, gizona baizik. Gizonak bere adimentuaren eta borondatearen eraberaz gizonago billakatu bear du.

Gizona gizartearen edo Soziedadearen zati edo parte bat besterik ezta. Aurrerapena ez bakarrik onek edo orrek lortu bear, Soziedadearen gizon guziak deituak izan bear dira artarako.

Gure Lurrari dagon guzia gizon eta Nazio guzietan nai dutena eskutaratu bear dute bere onerako zuzentasunaren arabera. Ontasunen Jabetasuna ezta beraz inorenazko mugarik gabeko eskubide bat, ezta salerospenetako legeak ere beren esku uzten badira. Norberak bere irabaziak ere ezditzake nola nahiez erabili eta baliatu, eta gutxiago oraindik erriko gendiari makur aundia egiten diotelarik.

Lantegi-gintzak bearrezkoa da baña onekin batean sortu den Kapitalismoa kaltegarri eta lotsagarria da, irabazia besterik ezbadu ikusten.

Gizonak famili bat osotu bear du.

Gizonak ere bere lanbideetako (ofizioetako) elkartasunak eta yakiteari komeni zaizkion batasunak baitaiezpadako eta beharrezko ditu.

Gizonaren aurrerapen osoa munduko gizon eta Nazio guzietan elkartzen ezdireneño ezta mundu ontan izanen.

Bakea ezbear, makurkeri eta zuzengabekeriak garaitzea da. Bakea egunoro azkartzen da zuzentasuna gizonen artean jarrikeri.

Eta Paulo VI garrenak itz okin bere Agiria bukatzen du: «Denak, deitzen, gomitatzen zaituztet gure naigabezko deadar samin gorriari iardetsi (erantzun) dezaiozuen, Jaunaren izenean».

## ALTSASU



Altasuko alderdi ikusgarri bat.

Naparroa azal-berritzen, gaztetzen asi dakigu. Idi maltso aundien patxada gozoak, trator mardulen prisa ekarri du; goldez lur zarra muturkatzeak, tximini luze zorrotzen zeru jorratzea; gauak eguna... eriotzak bizia.

Bai; gure erriek bizi nahi dute. Eta bizitzeko beste biderik ez: herritu behar. Berritu edo hil. Sortzearen erdi-minak berekin ditu berritzeak. Eta askotan zorrotzagoak dira aunditu ondoan egin behar izaten diren sendakizunak.

Ori dela ta, gure erri nekazariak fabrikak nahi dituzte; lantegi berriak. Dirua eskeintzen ez duenak, lurrik eman nahi ditu; eta besterik ezin duenak... itz politikak.

Altasun ez da ala. Aurreko batez alkateak zionez, Altasuk ez du lur eman beharrik, ez diru eskeintzerik fabrikak sortzeko. Berak, beren buruz etorriko omen dira komeni zaielako. Eta dena da, Naparroko beste erriak esnatzen asi orduko Altasua aspertua zela bide oiek ibiltzez.

Nork ez du aldiren batez trenetik ikusi? Kedar beltza bezain ilun du aurpegia; gau ta egun ba ditu trenak pixtuka. Eta ez tren bidetako etorkizuna bakarrik; fabrika zorbait ere ba dira Altasun.

tsasun. Ez behar ainbat! Oraindik berrehun langille aterako dira egunoro kanpoan lanera. Zentratu eta aundiago erria, buruaste geiago...


Gero, leku onean dago. Probintzitik gertu eta bide onak inguruan. Trenez ala bideberri, Altasun koropilatzen dira Madriletik Frantzira, eta Bilbao'tik Barzelonara dijoazen bideak. Ibaia bada, beste alde; eta zelai politikak ere bai.

Oieri esker, Naparroan azken urte auetan geienik aunditu den erria da. Zazpi bat mila arima ba ditu eta gora dijoa. Erakusketa kontuan bigarren mailako eskolak ba ditu. Aurrera Altasun! Nekerik gabe ez dago erri bat jasotzerik; orai Naparroari eldu zaizkion erdi-minak, aspaldi izanak ditu Burundako erri nagusiak.

Kezka bat bakarrik daukagu: bere nortasuna galduko ote duen. Eskualdun izana, ez ote dion Eskualerriari bizkarra erabat emango.

Lantegi berri eta fabrikak erretasunik eman gabe etorriko ba dazkio ere, odol oztuan bere nortasuna berritailerik etaio etorriko. Norberak du bere esku, erri bezala, hil edo berritzea.

Aupa Altasun!



Mutikoen bigarren mailako Eskol-etxea

(Fotos Izor)

## ESKUALERRIKO LEIOA

Berri ona. Azkarate —Atano txikiaren partida zela ta, pilota telebistan sartu da. Lenbiziko aldiz gure erritak, gustora jarri-ta pilota partida aundi bat ikusi dugu. Orat arte gutxiendako zena, eskualerri osoak iastatu du. Errikoi egin digu.

Sartzeko txartela ezin arrapatuz ibili beharrik gabe ikustea asko da; baño, bada besterik. Bildur aundia zioten telebistakoak pilotari. Plazak ikusgai gutxi duela, aspergarri izango zela eta, nor daki zombat aitzeki!! Uste dut telebistako gizonak berriz emateko gogotan geldituak daztekel. Gauza ongi atera da eta esan dezakegu gure pilota telebistan atari aunditik sartu dela. Asiera ona.

Pozgarriena auxe da: eskual gauzak etxetik kanpora ateratzen asiak ditugula. Ezagutzatik dator maitatzea. Pilotak egin duen telebistako ateraldia, Eskualerriaren onetan izango da.

Bertsolarien txapelketa ere ba-dator. Aldizkari au zuen eskura orduko txapelduna nor dugun jakinen da. Garagarillaren 11'an, eta duela bi urte bezala, Anoeta plazan, bilduko dira Eskualerriko bertsolari oberenak:

Arozamena eta Madariaga, Naparrotik.  
Lopetegi eta Mugartegi, Bizkaiatik.  
Xalbador eta Mattin, Bidasoz beste aldetik.  
Garmendia eta Gorrotxategi, Gipuzkoatik; eta gañera, len txapeldun eta bigarren diren, Uztapide eta Lazkao-txiki; auek ere giputzak.  
Aurtengo izena Gorrotxategi da. Gaztea eta itxura onean datorrena. Azken txapelketara, soldado dagon Espainiako beste muturretik etorriko da. Zortzi egunen barkazioa bertsuak kantatzeko... Ez da asko Cadiz'tik asita etortzeko; baño, pozik alare. Motzago izango zen ezin etorria.  
Pilotarekin egin duena egin baleza telebistak!!


Bizkai aldeko langile-nasketak zuzentzen dijoazela dirudi. Apal eroria da ango irabazbidea. Eta aurrera ere nolabait bizi behar!

Frantzi aldeko eskualdunak ere ez dute lantegi eta fabrikarik aski. Aspaldiko ametsa du eskualdunak bere txokoan bizi ziteza, baño berriz ere atera beharko...

## Azken orduko berri interesgarria

Gure illeorokoa atera baño lehenagotxoan Donostian Euskalerriko Bertsolarien Txapelketa izan da. Ara emen nola gertatu den: irabazle: Uztapide (Euskalerriko Txapelduna). Bigarrena: Xalbador. Irugarren: Lopetegi. Laugarren: Lazkao Txiki. Bostgarren: Gorrotxategi. Seigarren: Arozamena. Zazpigarren: Garmendia. Zortzigarren: Mattin, Madariaga eta Mugartegi, iruok batean.

Besta arras ongi izandu da. Zorionak Uztapide eta Xalbador bertsolari onenei, baita ere Bertsolari guziei. Zorion berexi bat Naparroko Arotzamenari ain ongi ari izandu zuelakoz. Narbarten partez, gaixoa baitzegen, Madariaga Arantzako Donostian egon zen. Narbarteri abalik laisteren sendatzeko Goiko Jaunari eskatzen diogu, eta Madariagari eskerrak eman beharrez gaude zera Donostira joateko mezua berandu artu bazuen ere berealaxe baietza igorri zigun, Donostira joateko prest zegoa. Milla esker, Madariaga adiskide jatorra.



## PAN - PIN, BIZI DA

Urteak badire PAN-PIN umetxoendako aldizkaria (revista) euskeraz ilero ateratzen dala.

ZERUKO ARGIA bezala PAN-PIN ere Donostiko Aita Kaputxinoak ateratzen dute. Berri au ongi zabaldu bear da; eta ongi zabaldu gañera. Zergatik?

Mayatzeko 7'an «La Verdad» deitzen den aldizkarian 7'garren orrialdian bazekarran zenbat aldizkari egiten diran Espainian umetxoendako, nolako izenak daukaten, eta zenbateraino mesedegarri edo kaltegarri aldizkari oyeke umetxoentzat izaten al diran.

Dena irakurri ondoan gauz batek arritu ta utzi nau:

Alde batetik «La Verdad» deitzen den aldizkari ori Iruñako ta Tudelako Diocesis guziko egiña omen da. Iruñeko Diocesis' en erri euskaldunak badira, eta ala guztiz ere euskeraz ez da agertzen ez ta lerro bat ere.

DIARIO DE NAVARRA'k ejemplo ederra «La Verdad» deitzen den aldizkariari ematen dio, amabostikan bein bedere orri bat oso-osoa nafar izkuntzan jarri, eta orri ori etzaio euskaldun bakarrak bialtzen, erosten dun guzieren baizik ematen zaio, naiz erostuna alemana izan.

Bertz aldetik 7'garren orrialdian Espainiako umetxoen aldizkarien berri ematean, katalanaz egiñak ere badirela, dakar. Gauz oyen berri ematea etzait gaizki iduritzen. Bañan oso gaizki iduritzen zaitena auxe da: euskeraz umetxoen aldizkari bat, PAN-PIN, badagola; eta au ez aipatu izate. Nafarra guziko deitzen den aldizkari batean.

PAN-PIN! Zu bizi zera... Bañan. Zure etxeko-batzuek etzaitute ezagutzen.

Aur txiki batek bezala negar egizu.  
Zure negarra entzutean, zure etxekoak yakin batez ZU BIZIRIK ZAUDELA.

«KRISALLU»



## PEDRO DIEZ DE ULZURRUN, SENDAGILLE JAUNA

Nork ez du ezagutzen gure mendi aldeko erri eskualdunetan, D. Pedro, Iruñeko sendagille eskualtzalea? Es kua! festarik festa ikusi dugu, Diputazioaren izenean aurren sariak banatzen. Eta beti, berriz asteko prest.

Ez dakigu nundik ateratzen duen denbora eta go-goa. Medikutzako lan guzia aski ez duela, erri agintari-ekin mintzatu, bertsolariak deitu, festa prestatu, sariak banatu... eta askotan esker txarra bildu!

Eskuararenganako maitasun aundi batekin bakarrik egin daike Diez de Ulzurrun jaunak bere gain artua duen lana. Amar urtez bera izan da, ixil ixila, Naparroko eskual esnatze onen arima. Loari kendutako orduak ez dira utsak atera. Duela amar urte baño giro ohea ikusten dugu Naparroko eskuararen soroan. Pozez beretik esaten diogu!

Orri auetatik, napar eskualdun guziren esker ona agertzean zorionak eman nahi dizkiogu!

Aurrera D. Pedro! Ekin eta jarrai.

## NAPARROA MAITE DOGU

(Bizkaieraz, Bizkaiko izkeraz idatzia)

Egun zoragarriak, benetan, Naparroara joan-etorria egiten genduzan «Funcor» Ikastetxeko irugarren urtekoak!

Ez genduan bear izan, ez, amaren, ez aitaren deadarrik, Jorralleko laugarren larunbatean ogeko izarak alde batera bota ta goizeko seiretan jagiteko!

Jaime abade jaunaren zainpean urten gintzazan Elorriotik, Zuzen Iruña'ra, eta an gauza eder asko ikusi genduzan: Takonera deritxon alderdi ederra, uria inguratzen daben arresiak, Katedrala, Foruen Gomutarrria, Diputazioaren Jauregia... Emen ezautu dogu naparroak euskeraz egindako PRINCIPE DE VIANA illeroko au. Ezin itxi esan bagarik «ikastolara» egin genduan ikustaldia: euskeraz ikasten dabe umetxo areik, eta eskual kanta politak abestu euskuezan, baita geuk be arei.

Iruña'tik Orreagaruntz jo genduan. An ikusi genduan Santxo Indartsuaren arrizko illobi ederra, baita beste edergarri asko be. Gero, Ibañetako elizatzko barrira joan gintzazan, euskaldunak Karlo Magnoren gudarozteari astindu galanta emon eutsoen lekura. Aldi zoragarria igaro genduan Naparroko edesti edo itxoria esaten euskun bitartean; naparrak be, geuk lez, euskal-odola daroe-ta.

Illuntzerunz, Agoizko antxiñako eliza ederra ikusi ondoren, Ripodas izeneko errira eldu gintzazan. Ango abadeak euskeraz emon eban meza, geure abestiz lagunduta; bizi-bizi dot gogoan abadeak, biotzikaraz, itzaldian esan euskuna.

Zankotza edo Sangüesa errian egin genduan lo. Ez dogu asko aitzten «erromani» ta «gotiku» lanai buruz; bañia ederra zer dan badakigu gutxi kora-bera: eta an bazan olakorik naiko!

Eta urrengo egunean Xabierera. Euskerazko meza entzun eta abestu ondoren, gaztelu guztia ikusi genduan. Gero, Yesako pantanua ikusi ondoren, Leireko prailletxera joan gintzazan, erromanikuetan lenengotarikoena, IX'garren gizaldikoa, gure Argiñetako illobiak lez.

Arratsaldeko bostak ziran; antxe egin geutsan agur D. Martzelino abadeari geure abestiakaz eskerrak emonez.

E'orriko gazteak ez dogu aztuko inoiz be Naparroara egin genduan joan-etorri zoragarria!

Agur, Naparroa, Euskalerriko anal nagusi ori!

### IRUGARREN URTEKO BAT

Ohartxo bat: Baita guk ere agur xamur bat igortzen diegu gure anaiak diran Elorrioko gazte zintzoei.



## ELIZAREN ITZA

### BATIKANOKO II BATZAR NAGUSIA. KRISTAU BATASUNARI BURUZ

Bi saill aunditan datzaz Kristoren oial joskurik-gabea urratu duten alderdiak. Sorkaldean izan ziren lenbizikoak, Efeso eta Kalzedoniko Batzar lagusien ondorenak, frankoz geroago Sorkaldeko Patriarkak, Erromako Aita Santuakin asarretu eta berexi zienekoa. Laureun urtez geroago, Sorkaldean, Reforma deritzairen gertakizunetan errialde osoak, edo saill aundiak berexi ziren Erromatik, oien artean urbillena galdituak Anglikanoen Elizak dira. Saill oken elkarren artean alde aundiak nabaritzen dira, asiera, leku, eta denboran baño makurrakokoak sinismen eta eliz-lege joskeretan.

14. Eunki askoz Sorkaldeko eta Sartaldeko Elizak beren bidea eraman zuten sende bezela elkarturik fede eta sakramentu bitzta batean, Erromako Elizak denen baimenarekin zuzenduz, edozein naske-ta sortzen zala bai fede, bai eliz legetan.

Indar aundia dute Sorkaldean leku-lekutako Elizak, oien artean, batez, ere, Patriarken Elizak esaten dakiotenak, Apostolu berberetik datozela galletzen direnak, orrengatik arrats bizia jartzen dute beren nortasunari eusten, beste elizekin fede eta karidadeko batasuna gordez, sende bezela, bakoitza beren maillan, inor mendeen artu gabe.

Ez dugu aztu bear Sorkaldeko Elizaren aberastasunetik artu ditugula aunitz gauz liturgi, gogo-jardun eta lege eraketan. Gure sinismeneko egi mardulenak Trinitate, Semearen gizon egite Maria birgiñarengandik eta beste asko Efeso Nizea, Constantinopla eta Kalzedoniako Batzar Nagusitan oratu eta erabaki zela eta egi aundi okei eusteko gorrik eta beltzak jasan dituzela Eliz aiek.

Gero sortu ziran nasketak, berexi giñen, elkarri amore eman bearrean, bakoitzak bere alde jo zuen, axaleko alde edo diferentziak geienbat, gure sinismenaren onarri diren Apezgoa, Eukaristia, Maria Birgiñarengako jaiera, Trinitatea, Kristologia, bi aldeak airtortzen ditugula.

Ausi-urratu ori nola konpondu? Ainbeste urteren buruen gogortzen joan dan gela nungo beazunak bigundu? Urratze arureko bi Eliz-zen artu-emanak aztertu bear lirake garbi, batasuna berriz aro artara itzultzeko.

Gero Aita Santu Joan XXIII garrena izandu dugun ori, Sorkaldeko alderdi aietan urte askoz egondu zan, Erromako ordezkari bezela. Estanbulen ango Eliz Agintariekin izandu zuen billera batean ola esan zien bere irri-par paketsuakin: «Etxe bateko sendeak elkar ezin konponduz dabiltzanean amarengana jotzen dute pake billa, zuek eta nik ama bat dugu Maria Birgiña, goazkion eskatzera» eta Agur Maria asi zuen, ango denak erantzun zioten.

## Urdiain'go San Pedro



Urdiain'go San Pedro ez da mundu guzian bezala garagarillaren 29'an; ori Altsasukoa da. Urdindarrak, San Pedro ondoko lenbiziko igandean egiten dute... berena.

Ez da gaurkoa. Ba-da Burundan, Urdiain eta Altsasuko muga-mugan baso-eliza bat zaharra. Arrian markatua du, an egin zutela 717'gn urtean Naparroko lenbiziko errege, gure Garzia Jimenez. Asko esatea da, baño atari aundiko arriak ala dio. Gregorio bigarren, Erromako Aita Santuak onartu zuela, eta paper oiek Burundako artxiboan zue-dela itsasten dio. Arri marratu ori, 1647, eliza berritu zenekoa da.

Nori bururatzten dakio eliza bi erritako lurtean egitea! Aldarea eta San Pedro Urdiain'goan dira. Saetseko ataria ere bai. Beste sarrera eta elizaren atzeko aldea Altsasukoan. Bien muga erdian.

Muga batek lurak berexiko ditu baño, eskubideak ez! Batean muga-arriak aldatuak zirela; bestean, aldarea dela gurea eta, buztana baño geiago dela burua... asarre aundiak ziren bi errien artean.

Burgos'en erabaki zuten auzia. Garagarillaren 29'an Altsasuarren-

dako San Pedro; eta ondoko igandean urdindarrak jaun eta jabe.. Konponketa polita!

Urdindarrak diotenez, anaiak ziren garai artan bi erritako apezak: zaharrena Altsasun zen apez eta gaztea Urdiain'en. Anai bien arteko pake bidea izan omen zen eta, zaharrena berearekin atera. Geroztik, ala dira gauzak.

Urdiain'go erriak egiña du bost kilometroko bideberria, eta denendako idekia da. Baso zelai ederrak bai dira, jende asko biltzen da uda denboran. Altsasuko festa egunean an dira Urdiain'go agintariak; eta berdin ondoko igandean altsasuarrrak.

Eskual dantza politik egiten dira San Pedro'ko plazan. Erriko alkatek ateratzen du lenbiziko zortziko eta batasun egokian konpon-tzen dira bi erriak. Garai bateko burrukak paperretan dira bakarrik, eta zaharren esanetan. Jainkoari eskerrak!

Inoiz aztuko ez dena, ba direla bi San-Pedro:

«Urdiain'go San Pedro eta mundu guziko».

«SAGI»

# Naparroko Unibersidadearen Lore Yokuak



Yoan den Maiatzaren 13'ean, larunbata, Iruñeko «Gayarre» Teatroan gure Unibersidadearen Lorezko Yokuak ospatu ziran.

Aurten Lore Yokuak lau Poesi, edo Olertien Sariaketak izan zituzten bakoitzak bere gai ezberdina, diferentia izaten zuelarik. 1) Edozein gaiako Poesi, edo Olertien onenari, erderaz. 2) Edozein gaiako Olertien onenari, euskeraz. 3) Antonio Machadori buruzko Olertien ederrenari, erderaz, eta. 4) Naparroari eskeindutako Olertien onenari, erderaz.

Bi Maipurutza, edo Juradu izandatu zituzten Lore Yoku oken antolatzaileek; bata erderazko Poesi onenak izendatzeko, eta bestea euskal Olerti oberen eta ederrera premia emateko.

Euskal Maipuruak aukeratu izan ziran: Lendakari edo Lenbizikoa: **Jose Migel Barandiaran** Apez Yaun Irakasle Agurgarria; **Ana Etxaide** Maixu Andereñoa; **Irigaray** Me-

diko Yauna Euskal Akademiko dena; **Satruestegi Jose Maria** Apez Yaun Agurgarri Euskal Akademikoa eta Naparroko Diputazioaren aldetikakoa; **Pedro Diez de Ulzurrun** Medikua Yauna Naparroko Diputazioaren partez izana.

Naparroko Diputazioaren «Principe de Viana» Elkargoaren «Euskeraren Aldeko Saillak» iru mila pezetako Saria Euskal Olerti oberenarentzat eman zuen.

Euskal Olertien Sariaketaren Lenengo Saria «Ura eta Lurra» izenez duena gertatu zen. Bilboko Alfontxo Irigoyen Euskal Akademiko gazte, ezagutu eta argia da Olerti onen egilea. Zorionak biotzez Irigoyen adiskidea.

**Poesia eta Bertso berrien Orri ontan** «Ura eta Lurra» Olertia, nagusi eta garaille gelditu dena, argitaratzen dugu gaur denak ezagutu dezaten.

## “URA ETA LURRA”

### URA ETA LURRA

Ura eta lurra naiz, aiz, da. Ala da eta gera, danok amaren sabeletik negarrez sortuak.

### EMEN EUSKALERRIA.

(Usu zuria errazu norat juaiten zira zu...)

Zatoz, zatoz gugana usoa. Auzoa zuretzat duzu osoa, elurrez portuak zuri. Zatoz, zatoz gugana. Mundu berri bat ohea, gurea, begira dugu. Lorea badakar azia guri. Zatoz, zatoz gugana usoa. Auzoa zuretzat duzu osoa, elurrez mendiak zuri. Zatoz, zatoz gugana.

### GEROAGO ERE.

Odol zati bero hori oraindik badabil golperik golpe trabak baztertuz, aire garbiaz zaiñak suspertuz, libre jarriaz golperik golpe.

### MAILLUAREN GOLPEZ.

Itxaso sakona ezta ezer bihotzeko leiza zuloaren ondoan. Bihotzeko leiza zuloa ezta ezer illunaren ondoan. Illunikan eztago

argi printzarik gabe, burdingintzarik gabe.

AY... AY... AY... AYAYAY... JA... JAJAY.

Irrintzia atxeman nuen menditik Urkiola-ra egindako jira batean eta arrezkero nire eztarrian dago, noan bideetatik zear, deadar zulatzaille bat bezala, eta ezti itzirkatzen ahalgo bere lekuan baitago, —irrintzia erriarena baita— eta behar zuen tokia aurkitu baitu: justiziako libertatea nahi duen [gizonaren bularra].

### URRATZIK URRATZ.

Oñez goaz aizeen kontra, euskal aritza. Oñez goaz aririk arri uraren gisa. Oñez goaz, goaz, goaz, goaz eta oraindik zutik gaude, torre baten jaube.

### GERNIKA.

Uri bat dago Bizkaian, zauri bat dauka sustraian, metrallaz bere matraillan egiña suzko garaian.

### ZUTIK.

Domuru santuru, eznago seguru. Baditut sepultura bi t'amabi logura buruan uluan. Baditut eskultura bi t'amabi pintura zokoan gogoan. Baditut estulgura bi t'amabi lillura erreta, gordeta. Domuru santuru, eznago seguru: Amabi logura anparo gabe. Amabi pintura nekeen jabe.

Amabi lillura galduak daude. Gizona dan guztiak altza beza [burua].

### OLLARRAREKIN.

Kukurruku, kukurruku! Zer daukazu? Zer nai duzu? Amabi mizpira ustel iretsi ditut. Amabi esnatze goibel gaitzetsi ditut. Behar aña kabi epel onetsi ditut.

Kukurruku, kukurruku! Zer daukazu? zer nai duzu? Amaika gerrate triste zabaldua naiz. Amaika morroe gazte estaldua naiz. Esperantzaz ainbat este afaldua naiz.

Kukurruku, kukurruku! Zer daukazu? zer nai duzu? Ametsa bakearekin dut astero. Kunplitzen ezpada ezin dan ezkerro, eguna argitu dedin dut espero.

### MENDI ETA ARANETAKO GIZONOK.

Euskalerrria soro bat da. Behar da landu arrastaka edo arrastoka.

### DIZTIRA

Euskalerrriko lurra zapalduko dugu. Euskalerrriko aizea sentituko dugu. Euskalerrriko arnasa artuko dugu. Euskalerrriko boza edatuko dugu. Euskalerrriko izarra aurkituko dugu. Euskalerrriko lurra arrotu dedin. Euskalerrriko aizea kariziaz bikaiña izan dedin. Euskalerrriko arnasa birikiak betetzekoa izan dedin. Euskalerrriko boza

munduan zear frutu emaille izan [dedin].

Euskalerrriko izarra ditziratsua izan dedin. Euskalerrriko gizonak anaiak izan ditezen betiko.

### ARGINTZAN

Euskalerrri bat sortuko dugu aizeetara zabal zabal.

Zimentarri bat sartuko dugu bihotzetara zapal zapala.

Aritz orri bat artuko dugu eskuetara sozial soziala.

### DIZTIRAK.

Bizi dan baten bihotz taupadarik txikiena, itzetan sortu diran poema guztiak baiño baliotsuagoa da.

Bizi dan baten amodio printza bakar bat zeru osoa baiño bikaiñaagoa da.

Bizi dan baten sufrimentu erraño bat infernu osoa baiño gogorraagoa da.

Bizi dan baten itza giltza da mundukoak formatzen dugun izpiritu osoarena.

### PRINTZA.

Entzun! Izarrak begirik ez tuteanean, gabean ditzira motelak bialtzen ditunean illargiak, barrengo eztena marrumaka asten zaidanean paseatzen, orduan, zure irri apurtuan garra sentitzen dut, bakartadean bakarti, saguzar beltza.

Zatoz! Personak egoki eztaudenean, egunez erriko auzoan argirik ez tuteanean eguzkiak, egarri sikua deseoa sendoan

dudanean arraildua, orduan, zure irri apurtuan garra sentitzen dut, kanpantorrean kantari, saguzar beltza. Eta, ikara gorrian paratutzen naiz, gizona somatzen dudala galdua illunpeen zuloetan, urduri edaten mingaiña luzatuz lur gatz egin diranetan. Orduan, nire ortzen gorputzera otza pasatzen zait, dardarazioz dardar, saguzar beltza.

### AIREA.

Nora oa aizea? Nora oa? Nora? Timoi gabe galdua, timoi gabe peoi, abiada luzean, espazio utsean, suberteen morroi? Nora oa gogoa? Nora oa? Nora? Indar gabe makurra, indar gabe baldar? Lagunaren askasa ez tutean eskasa aizea ondo ar.

Nora oa aizea? Nora oa? Nora? Birikien barruan birikien ziri? Osasuna zabaltzen, miseria zapaltzen txiriluru liri.

### BIDEAN ZEAR.

Egun batean gizon baten eta bestearen eta bestearen itzal pillatua deadarka asiko da eta zabaltzen duen arria azpiratuko du eta arrian zimentua artuko du mundu justuago bat eraikitzeko.

A. IRIGOYEN

## «1967'go Iñaki ta MARI KARMEN»

1967'GO GARAGARRILLAREN 9'AN

Udara garaiko lenengo «turistak» asi zaizkigu. Amaika eztabaida, esames eta jolas-bide sortuko dituzten zorioneko «turistak».

Zikinkeria, lotsagabekeria eta gordinkeria besterik ez dakarkigutela, esango digute, «Jakinduriz» eta giza-bizitzaren esperientziak betetako asko ta askok. Gure oitura onak galtzera besterik ez dirala eldu... Masoneri-zaleak eta Judiotarrak eraturako «kanpañak» dirala ta abar, beste batzuek.

Baño aurreko aukerak alderdi batera utzita, beste muturretik ekingo dutenak ere izango dira. Ala-ola jantzita eldu diran oiek, ziñezko askatasunaren jabe egin diralata... Gure aurrekoek, gizadiari eta giza-jokabideari buruz izan dituzten iritziak ezer ez dute balio ta... ta, ta abar.

Batzuek eta besteak, adarretatik eldu bearrean, belarrietatik eta buztanetik eltzeten diote zezenari. Guztiak txartat jotzea, dana bedeinkatzea bezin kaltegarri da. Giza jokabide eta alderdi guztiak bezala, «turista» auenak ere, alde txarrik eta onak ba-dituzte, baño «positibo»ena, alderdi on ortaz baliatuz txarra menderatzen saiatzea izango da beti.

1967'GO GARAGARRILLAREN 18'AN.

Igandea dalata, Mari Karmen nere andregai ta biok, «Vespa» xarrean, lasaitasun eta itzal billa atera gera. Ain gogoko zaigun erri-txiki inguruko ibai bazterreko itzal goxoaren billa. Xilatasun eta pake billa atera arren, erri txiki eta ain

txiki ez diran askotako, igande arratsaldeko xilatasun eta pakea geigekoa ez ote? Errietako Igande arratsaldearen arazo edo prolema arren barrerana sartua daukat eta bein baño geigatzen Egunkari edo Diario ontan aipatzea ez arritu.

Gure errietako alkartasun eta pake palta asko, igande arratsaldeko pake eta lasaitasun «geiegi» ontatik sortzen ote diran uste baitut. Otoitz egiteko eta lanerako alkartzen dan erria, «dibertitzeko» garaian erriatik kanpora atera bearrean arkitzea, penagarri baita.

Noren erruz? «Zu pekataria» ez baño «Ni pekataria» esateko garaian arkitzen gera guztiok. Asmorik onenarekin jokabiderik txarrenek artu ditugula, ezagutzeko eta aitortzeko garaian gaudela uste dut.

Pekatu bildurrak eraginda, beste pekatu bide asko ez ote ditugu sortu? Amar aginduetako bat gorde nairik, beste bederatzietako batzuk, pikoetara ez ote ditugu bialdu? Zeinbait dibersio-bideen bildurrez, dibersio palta eta errietako alkartasunik eza, ez ote ditugu sortu?


Erri bateko gaztedia, igande arratsaldean erriatik atera bearrean arkitzea ez al da arazo edo prolema? Ta gure artean au gertatzen ari dalanork ukatuko?

Asi dezagun borondate onarekin jasotako azteaketa edo esamiña. «Dutena aski dute eta bestela or konpon» esanaz ez da ezer konponetzen!

«AUNAMENDI»

# MENDIZ

## NAPARROKO LENENGO NEKAZARI - IKASTOLA LEITZAN



Leizako Patronato Amazabal-ek erata, Naparroko lendarizko nekazari-ikastola, bere lenengo ikastaldia bukatu du.

Ogeita-amar mutill izan dira, jua zan urteko azaroran asi eta aurtengo Lorailaren amabostera bitarte ikastola ontara etorri diranak.

Esan dezakegu Naparroko mendi-erri alderdi guztietatik etorri dirala ikastola ontara. Emen ibilli dira Inza, Huici, Arriba, Atallo, Leiza, Oderiz Arruiz, Goldaraz, Itsaso, Elgorriaga, Osoz, Ituren, Burguete, Garralda, Irurita, Alii, Urroz eta Latasako mutillak.

Asiera guztiak bezela onek ere bere zailtasunak izan ditu, bañan okerrena egiña dago: ibiltzen asi; aurrera ere jarraitzeko asmorik beroenak ditugu, orrenbeste denboraz itxaro diran laguntzak iristen badira beintzat.

Lenengo urtean konturatu gerana izanda, gure errietatik etorri diran mutill guztiak jakintza edo kulturaz oso motz etorri dirala, eta onuntz etorri izan ezbalira etzutela geiago inun ikasiko. Onek adierazten digu zeren gaizki eratuak dauden gure errietako lenengo eskolak, eta gure baserrietako gazteak egokiago eskolatzan ezdiran bitartean ezdagola baserriarren artean aurrerapen aundirik izaterik.

Au ikusita lenengo urte ontan, erderaz «cultura general», edo «dannerako jakintza» erakusten gogor saia-

tuak gera, nekazaritarako eman diran ikaskizunetzaz gañera. Egunean 11 ordu egin dituzte ikasten, bañan ala ere jolasaldi ederrak egiteko denbora artzen zuten eta alaitasunik ezta beñere beren artean faltatu.

Ikasketako ibilialdi batzuek ere egin dituzte, alkartutako baserriarren ikullu ederrak, ollotegi, baserriarren arteko esne-fabrika, baserri anerako tresna edo makina exposizio, eta abar ikusiaz.

Lenengo urtean ikasten asi diranari jarraitzeko, pozik juañak dira beren etxeetara, udarako lan estualdia igaro ondoren berriz udara-azkenean Leiza aldera itzultzeko asmotan.

Auek bigarren urterako eratu diran ikasketak egin-go dituzte, bañan berriak ere artuko dira, beragaitik baserri lanetan ikasketako asmoa duten mutill guztiak etorri ditezke beñi eta 14 urte bete ezkeror.

Etorri bada, pozez Leizta aldera gazte zeratenok eta zeuen bizimodua baserrian lana egiñaz ateratzeko asmoa dezutenak. Guraso zeratenak berriz iriki zuen semeentzat etorkizunaren ateak, sinistu orain urte bat edo bian egin-gabe uzten dituzten lanak bateko egune-kiñ ordainduko dituztela.

Beragaitik saiatu zuen semeeri beren bizi guztian eskertuko dizuten ikasbide bat ematen.

«OIALDE»



Maritxuk: Baru ta bijiliez zuk baño geiago dakitenak badirela, Engraxik!

Engraxik: Ez dun gaitz: iakitatean ni baño geiago, edozein: ortaz bialli nai nanen apezarengana. Zertan zeon makurre?

M.: Urtearen orzilarre guziek bijili egunek omen dire: zuk garizume-koak bijili egunek deitzen dituzu; gañerakoak berriz penitenti egunek...

E.: Bai: baño bigarren egun oietan autetzen al duzun gauze bijili egitea ere dela erran natzun; ez zara oioitzen? Au duzu gañera urte guzian Elizaren lege au betetzeko bide oberenetatik bat.

M.: Bai, bai: baño... elizeko kutxatxo batean diru pixka bat urtean bein bota... eta urte guzian lasai-lasai egon gaitzekela, non zeneukezun? Estu samarra zara gero zu!

E.: Ez duzu gerore maukezabal orrek orzilarreoro Dotriña edo Ebanjelioak ikasten aritzea autetu! Urte guziko orzilarreok penitenti egunek dire, zuri eta zu bezelakoeri egi au atsegingarri ez bazaitzue ere!

M.: Orzilarre guziek, ez. San Jose, Salbatore, Bestaberri, San Pedro, Santiago, Amabirjin egunek ta bertze bateonbat orzilarrean izeten bada, ez da egun ortan bijili egin bearrik, ez ta penitentzik.

E.: Salbatore ta Bestaberri orzilarrean izenen diren urtean, egun oietatik bakoitzerako, pozik alare, emanen datzet aratxe eder bat.

M.: Itzeko emaztekie zaitugu?

E.: Bai; beti: ta untan batez ere! Goazen orai afera garbitu. Penitenti egunek baldin badire orzilarreok, penitenti egin bearko guk orzilarretan. Urtean bein sos pizer bat emanez, gure Eliz Amari leialtasune eta gure Jainkoari gure bekatuen zorren ordaintzeko naia guk nola agertu? Saltsa zikin guziek diruekin estaltzera oituek gaude: animekoak ere sosakin kalamelatuko ditugula uste naski...: baño untan ere ez nenbilen lengoan burutik maingu, ez: bearretan dagon bat, orzilarretan laguntzen al duzule, NAI BADUZU DIRUZ, erran natzun. Untan eta gañerako gauzetan, egin

## IKASI, MIKASI...

BB

### ¿ZE OTE ZUN BUXTANIAN XAGUTXO ARREK?

Piske bat bildur nitzen gure Mielanton aserretuko ote zen bere izena «IKASI, MIKASI»n ikusteaz. Baño, ez; ez da aserretu. Telebisioan begia bere gain ikusita, irri parrez eta eskuakin keñuka asten direnak bezala, gure Mielantonek ere ongi artu du guk illeroko ontan bere izena arkitarzteza.

Ara, atzo goiz, biek izandu giñun elkar-izketa:

—¿Beste galde on bat egitea, Mielanton?

—Bai, beste galde bat ein nai nioke.

—¿Erligio gauzetaz?

—Usteot, baietz. Biñepin, gure apez jaunari aithu nion esaten mutiko ta neskatoai, kistar ikastiya azaltzen ari zela...

—¿Ze aditu ziñion esaten?

—Jainkoak, gure lenbiziko gurasoak jarri omen zithun atsegin baratza baten, eta esan omen zien jan zezaketela igali edo frutu guzietatik, baño sagarrondo batetik ez jateko. Ta Ebak, deabruak tentatuta, jan omen zun sagar bat. Geo, Adanei eman omen zien besteat, eta arrek ere jan...

—Ala diagu, itz-itzez, Eskritura Santuak, eta ori izan zen lendarizko pekatua: Jatorrizko pekatua.

—¿Etzaio iruitzen, oi mutiko ta neskatoei kontatzeko kontu polit bat besteik ez dela?

—Ez dakit zerengatik.

—¿Beste sagar onbat etzuten jan izain?

—Mielanton, zure ta beste askoren malezia ekusten det kezka ortan.

—¿Esan beza argi, jaun! ¿Elkarrekin eginako gaiztakeri onbat etzen izain sagar ori?

—Gogorazio ori, maleziko gogorazioa dela agertzeko, bakar-bakarrik jakin bear dezu Adan eta Eba senar emazteak zirela. ¿Jainkoak, esku batekin eman zien almena, beste eskuekin kenduko zien?

—Arrazoiezkoa dirui, beorrek diona; ala ere, ¿sagar bat jateagatik...!

—Begira, Mielanton. Badakizu irraeldarrak figuretan mintzo oi direla. Jar zazu, bada, nai baduzu, sagarraren orde zudarea izan zela, edo ollaskoa, edo umarrie. Beñepin errax betetzeko AGINDU BAT jarri zien. Ola etzaketen esan gauza zalla zela jarri ziena. Eta Jainkoan AGINDUA autsi zuten, eta baita galdu ere, berentzat eta beren seme guzientzat, zorientasun ura!

—¿Beorrek Jatorrizko pekatua —Pekatu orijinala— esaten dun oi, kontu polit bat besteik ez bada...?

—Ez da kontu bat. Egi biribile da. Zeorrek, beste edozein gizon eta emakukumek bezala, egiztatu dezakezu zere barnean errebeskeri onbat izandu zela gizadi sorkunde. Adibide batekin, argiago esango dizut. Erleju bat, ogei ta amabots minutotan ongi, bere pausoa,

ba dabil, eta, beste bost minutotan ordu erdi bat aurreraten ba da, sumatzen duzu zerbañt —ozka onbat, edo...— ba dula barnen. Ala, gu ere, geienin, eta atsegin aundiaz, goaz zeruko bidean, baño, moizik bein, indar gaizto batek bultzatzen gaitu gaiztakerira. ¿Nondik dator kigu okerkeri ori? Zugaitz bat, ondoan arrak jota degoanien bezala.

—Ikuste'ot noa doaien beori. Ta, ala izan baten, ¿zeengatik utzi zion Jainkoak deabruai Adan eta Eba tentatzea? ¿Etzakin eroiko zeela?

—Gure lendarizko gurasoak, zorientasun ura berea zela esateko, nolabait bear zuten irabazi. Nai ta naiez zerbañt egiten danian, ez da meritorik. Meritua izateko, bear da, Salomonek dion bezala: LEGEA AUTSI AAL ETA EZ AUTSI; GAIZ EGIN AAL, ETA EZ EGIN. [Ecc. 21-10].

Aingeruak ere, izan zuten alde bat bere zorientasuna irabazi edo gal zezaten. Mikel Deuna eta beste aingeru onak, irabazi zuten zeria. Luzifer eta beste deabru guztiak, irabazi zuten betiko infernua...

—Orain, beste galde bat.

—Galde nai dezun aibeste.

—Gure lenbiziko gurasoak galdu bazuten Jainkoak eskeñi zien zorientasuna, ¿zeengatik ordaindu bear degu guk aien gaiztakeria? ¿Gu ez giñen an...!

—Bai. Nolabait, gu ere an giñen. Adan, gizadi guzian buru baitzen, beragan giñen arengandik jaioko giñen guztiak. Pekatua, bi eratako izan ditek: Norberarena ta Jatorrizkoa. Adanentzat, egin zun pekatua, bietakoa izan zen. Guretzat, Jatorrizkoa bakarrik, baño, nolabait, GUREA.

Adibide batekin, obekiago esango dizut. Zuk galduko baziñu duzun diru guzia aizkora apostun, edo... galduko ziñuke zuretzat eta zure semientzat...

—¿Gaiñki egiñe, baño ola da!

—Ez, bada, esan, Adanen pekatua etzela nolabait gurea.

—¿Alajañe! ¿Ederra ein zigun Adanek!

—Aurki, guk beste aibeste egin-go giñun.

—¿Nik biñepin, ez!

—¿Nik, ez! Ala esaten omen zuan jauregi ederrin zen morroi batek: —'Adanek sagarra jan zulako, ni beti arrastakan ibilli bear...'

Bein, bere nagusiak eman omen zion kajatxo bat, gañeratuz: —'Biar arte gordetzen baduzu kajatxo au, barnen dagona ikusi gabe, zuretzat nere etxea eta nere baratza'. Juan zen gure morroia etxera, kajatxo besapin zeramala. Bere emaztiak ikusi zionin, asi omen zitzaion esaten: —'¿Zer duzu kajatxo ortan?' —'Utzi zazu pakian; jabiak esan dit ez ukitzeko. Biar, dagoan bezala, eramaten badiot, guretzat izango omen da bere jauregia'. —'Nik ikusiko det kontuz, eta ez da oartuko'. Batek, ezetz, eta bestea baietz, azkenian bete zun emakumiak bere ikusnaia, ta, kajatxo idiki zun ezker, jtxirrist! atera zen xagutxo bat, eta izkutatu omen zen etxe zar arren txulo batetik. Gero, alperrik zen beste xagu bat arrapatzea, zergatik, iges egin zunak, buxtanian lotuta omen zun girgil edo zintatxo bai...

¿ZE OTE ZUN BUXTANIAN XAGUTXO ARREK?, esaten omen zun morroi gizagajoak.

—Ongi asmatu zun, kontu oi jarri zunak, eta badu bere irakaspena.

—Mielanton; bein gertatu zena, gertatuta dago. Baño, zorionez, Jesukristok idiki zigun berriz zeruko ataria. Pozik esan dezakegu, bada, Eliz Ama Santak, Larunbeta Santun esaten duna: BAI OBEN ZORRONEKO, OLAKO SALBATZALLEA MEREZI IZAN DUNA; KRISTOREN ERIOZAK DESEGIN BAI ZUN... (Exultet).

Jatorrizko pekatua ordainduta dago, baño ¿kontuz norberaren pekatuekin, ez gaitzean galdu betiko...

IBARRONDO

A. ASTIZ ARREGI

# ERRIZ-ERRI



## BAZTAN

### PARISTIK EUSKAL GIROA

Yoan den Apriaren 30'ean "Radio Paris'tik" euskal irrati saioa entzun ginuen eta bereartan Aita Frantzisko Elizondarren "Eztu iñork ere jakingo" deritzaien ipui polita agertu zuten, lesakar Paskual Aldabe'k irratirako antolatua eta berak mo' datutako euskal soñu ederrarekin apaindurik. Antzerki edo teatroaren gisera erakutsi zuten eta ortan lana egin zutenek zein xarmanki eta zer eskuara ederrean aritu ziren, ezta baxenabartarrak edo lapurditarrek ote ziren baño beti ere izigarri ongi. Ar ditzatela gure goresmen bizenak. Gero Mayatzaren 28'an ere, berriz Aita Frantzisko Elizondarren bertze ixtorio bat "Besteena ezagutu: gurea ez" deitutakoa agertu zaukuten, au ere guziz atsegingarria eta lenagokoa bezala lesakar Paskual Aldabe'k irratirako antolatua.

Bi komedi oiek atsegin aundia-rekin entzun ditugu eta berriz ere "Radio Paris'tik" orrelakoen bat ilabete guziz azkenengo igandetan emanen daukute, "Paris'tik euskal giroa" deitzen duten irrati saioan eta arratseko ameka terdiateko inguruan. Gure adiskide euskaltzale zintzo den Paskual Aldabe'ri gure zorionik maitekorenak eta aintzinat ere segi dezala gisa ortako komedi politik apaintzen, euskaldun yendeak pozik entzuten ditu eta gure eskuarari emanen dion ohorea onu ragarria izanenu da. Zai egon gaitezen.

### BAZTANDARREN BILTZARRA

Udara gañean dugu eta Elizondo'ko bestak urbiduxek. Aurten Santio ondoan omen dugu "Baztandaren Biltzarra" eta berri orrek aunitz poztutzen gaitu, egun ori baita baztandar guzrien bilgura, denok baturik elkartasun goxoan igarotzen duguna. 1963, 1964, eta 1965

garrengo urtetan biltzar ori bera egin zen eta egun oiek utzi zaukuten oroitzen ederra ez dugu atzundurik. Yaz etzen biltzarrik izan baño aurtan Yainkoa lagun Abuztuaren seia berexi dute baztandar besta ori ospatzeko eta aintzineko iru urte oietan bezala izanen ditugu: Goizean eskuarazko Meza, gero karriketan barna "Karrozen ibillaldia". Bazkal aintzinean Mutil-dantza. Eguerdien Bazkaria eta bazkalondan, dantzariak, kantariak, txistulariak, bertsolariak eta zenbait ikusgarri. Arratsaldean plazan txistu soñuarekin naiko dantza Eztakigu oraindik baño behar bada euskal teatroa ere izanen dugu naski. Beti ere gauzak gerta daitezila guk nai bezala eta baztandar gazteria eta oriekin batean zaharrak ere, egun eder bat igaro dezatela denak bat eginik euskaldun onak bezala.

### ELIZONDO'KO AMABOST ALDIKO MERKATUA

1967 Maiatzaren 13'gn.

**BEIAK:**  
Aitzinerako beiak, 24.000'tik 38.000 pezetara.  
Esneko beiak, 27.000'tik 36.000 pezetara.  
Migak ernariak, 22.000'tik 26.000 pezetara.  
Aragiko beiak, 30'50'tik 36 pezetara kiloa bizik.  
Aratxeak, 55'til 60 pezetara kiloa bizik.  
**TXERRIAK:**  
Bi ilabeteko kumeak, 900'tik 1.000 pezetara bakotxa.  
Bargoak, 2.100'tik 2.800 pezetara.  
Zerriak gizenak bertakoak, 29'tik 32 pezetara kiloa bizik.  
Zerriak gizenak "York" delakoak 32'tik 34 pezetara kiloa bizik.


### IZETA

## ORONOTZ

### PELOTA'KO EGUNA

Oraindik denbora asko ez da aipatzen gendula nola Oronotzek, Anai Maristen Ikastetxeak, antolatzen zeraman "pelota'ko eguna" XXVI garren a'diz. Eta ain zuzen

## SORAUAREN



Soraurengo erriak aurtan Korpus eguna edo Besta Berri Eguna, pestakutsu berexiz igurtzi du. Bederatzi aurrak —zortzi neskato ta mutiko bat— beren lendabiziko jaunartzea zuten. Erri «pilotoaren» kaleak, beñere baño apañagoak, alaitu ziren Iruñeko bi txistulari gazteen soñuaz; atabala apezgai gazte —oso gazte— baten eskuetan zegoen. Seminarioko dantzari txikien ikusgarriak erriko guztien biotzak poztu zituzten.

Erria barrena ibilli ondorean, dantzari ta txistulariak, plazatik elizera aurrei lagundu zuten. Eliz-atarian erriko erretorea, Don Juan Jose Gurrpide, zai zegoen. Mezako garaian —meza ere «piloto»— dantzari txikiak eliz erdian zutik jarri ziren. Kongsagrazioan «Agur jaunak» aditu zen Jauna agurtu ta iauretsiaz. Kantuak apezgai talde baten gain zeuden.

Meza ondorean, bereala, prozesio bat egin zen erri guzitik. Bukaearen dantzariak arku bat egin zuten, azpitik jaunartutako aurrak igaro zitezen.

Urrena euskal-dantza polit batzuek eman zituzten plazan. Seminario-txikiko kantari ta jotzalleak (rondalla) ere eskeini zituzten abesti ederrak Jabier Redinen ardurapean.

Goiz xarmanta Soraurenak bizi izan zuena egun ortan, kutsu berexi batez igurtzia. Soraurenak bere antziñako izanera berpiztu zuen, bere kale ta etxeak —zaartuaz— berritu zituen bezala.

G. ECHANDI

lore-illako (maiatza'ren) ogei ta bederatzi garreneko egunaren "argia" ikusi ta ondoren, berri zerbait eman nai dugu lerro auen bidez.

Lengoan, zillegi ta bidezko zela iduritzen bazitzaigun egun orre-ri buruz zerbait idaztea, izkribitza, bidezkoago izango da noski ikusi ta ondoren arrazoi ematea.

Lan latza ta samia dela argitara eramateko orrelako egun bat, dudarik ez dago. Gauz txikietan ez-bearrak sortzen dirala denok dakigu. Aundietan, zer esanik ez... Ala ta guztiz ere, "ez-bear" guziak garaitu ziran eta izan gendun zer ikusi Maristen "Santiago" pelota-leku ederrean.

Goizeko amarrak aldera asi ziran farra... farra... farra kotxeak. motoak ta oñezkoak etortzen. Berregun kotxetik gora ta iruogei mo to omen ziran guardia biletan erran zutenek. Kolejioko futbo'ko be-lardi aundiak, iduri zuen Madrid'ko Bernabeu... Pelota ganako arre-ta aundia daukala jendeak dudarik ez dago. Pelota-gose dabil. Ta onke poztan gaitu. iBazegon emen-txe jende! Agintari jaunen kontukoetik ikusi genituen: Juan Antonio Elola Olaso, España'ko deporteen jaun-ordea izana eta Madrid'tik etorria; Azkue jauna, au ere Madrid'tik etorria; Migel Lata-sa; Jabier Artxanko; Frantzisko Errodriguez; Migel Gortari; Sagar-audj jenerala ta bes gizon asko aundiki. Baita-ere mai-buruan arkitzen zan "Santi de Andia" zana-ren emazte a'argua bere bi seme-alabekin, biotzez maite gendun Xanti zanaren omenez ospatzen bai zan aurtengo "pelota'ko egun" ori.

Programak zion bezala, onela izan zan lenbiziko partidua: Erre-tegi-Andueza, Pierola-Lajos'en aurka. Zortzi ta batez egon ziran irabazi zutenak (Erre-tegi-Andueza) bañan, gero, pixkana-pixkana ur-bilduz juan ziran besteak, au da, 9-5, 13-6, 13-11, 15-13; bañan, ber-dintzera etzitzaien baliatu. Irabazi zuten "Eratsun'go ezkerak" ta Modexto Anduezak: 22-18.

Gero etorri zan bigarren parti dua, jendeari asko ta asko gustatu zitzaiona; Tapia anak Bergara-Etxabe amargarrena'ren aurka. iMotellak, ura zan ura partidua! "Joxtaketa" bat izango zela esana zeukan norbaitek: "egurra" ematea zan ura, eta ez "joxtaketa"... Sei ta batez zijoazten Tapia anak irabazalaz. Asi zan Bergara berotzen, ta 6-5 jarri ziran beala; 8-6, 9-8, bederatzira berdin; 9-14 Bergara-Etxabek Berriz berdindu ama laura, amabostera ta amaseira, bañan, azkeneko bi tantoak saketik egin zituen Bergarak, au da, 18-16 geldituaz. Bear bada Oronotzek orre'ako partidodrik euki ez duela zioten askok ta askok. Baditeke ezetz. Pasatuak aaztu arren. Jendeak oroinen eder bat eramango zuelako ustean gaude ba.

Eta onetxeekin bukatu nai dut: Don Xegundo Gangotitak, bere 73 urteekin, jarrai dezala "bixkor ta animoxo" aurrerantzean ere ORO-NOTZ'ko "pelotak" erre-kiste aundi bat izateko. Jaunak urte aundi-tzetako zaitu dezala ta izorionak! biotzetik.

GORTARI UGARTE'tar YON



## SALDIAS

### ARGIÑENEN BORDAKOAK SARITUAK

Argiñeneko bordako Mikel eta Roxari aurtan ere sarituak izan dira, amalau umeen gurasoak direlako. Naparroko bigarren Saria izan dute. Amar milla pezetako izan da artu duten Saria. Izan dituzten ume guztiak bizi zaizkielako saillean izan dute Saria. Maiatzaren lendabizikoan, San Jose Langille egunean (Lanaren Besta ere bai) jaso zuten beuen Saria Gobernadorearen eskutik. Zorionak biotz-biotzetik.

### ALOR LANAK

"Aro ona, langille", da esaera za-

# NEKAZARITZA ETA ABEREAK. KULTURA EDO YAKINTZA

«Atxurrean egiteko ezdago ikasi bearrik». «Eskolatu ezkerro ezdu iñork baserrian lanik egiñ nai».

Auek dira sarritan entzuten ditugun itzak, eta orrelako esanakin gure barrena lasaitu nai degu, gure baserriarren ezjakintasunak ematen digun kezka ito naiean.

Esan bearrik ezdago gure baserria ordu estuetara iritxita dagola, eta ezin bizi ikaragarri bat sartu dala gure tardean.

Egoera batera iristen danean gizona edo gizaartea, naiz ona edo txarra izan egoera au, zer arazoiek ortara bultzatu dun begiratzera bearrezko zaigu, okerrera eraman gaituzten bideak austeko, edo onez baldin-bagoaz ortara ekarri gaitun bideari aurrera jarraitzeko.

Eta gu ere baserriaren egoera ikusita, auxe berbera gaude egin bearrean; gaur arkitzen geran ezin bizi ontara zerk ekarri gaituan ikusi, au egin ondoren, oraiñarte oker emandako pausoak zuzentzeko.

Gaurko gure egoeran eragozpen asko ikusten ditugu: sortzen ditugun esne, txekor, axuri, gazta, edo beste frutu guztien salneurria (prezioa) geure eskuan ez edukitzea, orain berrogei edo eun urte bezelatsu lan geienak eskuz egin bear izatea, neurri txikiko baserriak, urteak ditun egur guztietan aste eta igande oporrik gabeko jarduna, umeentzako eskola egokirik eza eta daudenetara biali eziaña, emakumeak baserriera ezkondu nai eza, gaxotasunean ordezkorik ez, eta ola, edo fabriketako langilleak bezela gaxotasun eta zartzarorako seguru edo dirubiderik eza, eta auek danak orrela izanda, eguneroko diru bearrak ordaintzeko sarritan iritxi eziaña.

Garai batean eta oraindik denbora asko ezdala, baserriko maiorzgo edo baserrian bizziten jarraituko zuanakin ezkontzea gure errietako neska geienan ametsa oi zan, bañan gaur baserriak nola iges egingo ametsetan daude guztiak.

¿Zer ekarri du bada gure baserria egoera ontara? Milla iritzi izango dira gauz onetan, eta nik ezdiot iñori bererik kenduko, bañan nere ustez arrazoirik nagusiena, beste ezbeaz guztien iturri izan dana eta izaten jarraitzen duana, gure baserriarren ezjakintasuna da.

¿Zer erantzun orduan atxurrean egiteko ikasi bearrik ezdagoala esaten duanari?, oso errez: gaurko egunean bear dan eran ikasten baldin-badu ezduala atxurrean jarraituko baizik beste era batera lana egingo duala, gure baserriaren bear diran aldaketak egiteko ezduala kezkarik izango, eta ezjakintasuna menderatzen baztertuko dituala berekoikeri eta deskonfiantzak; naiz lanerako, saltzeko eta erosteko bear diran alkartasunak sortuaz.

Beragaitik ezdezala iñork pensatu baserriko lana ezjakinentzako danik, duda edo zalantzik gabe esango nuke fabrika lan egiteko baño askoz geiago ikasi bearra dula baserria bear bezela zuzenduko duanak.

Orain batek baña geiagok esango dute: nolatan eskolara biali gure mutillak etxean laguntzeko aña egiten diranean, lana besterik iduki ezta? Galdera oni eta beste geiagori erantzunez jarraituko degu.

AITZGORRI

harra. Denok badakigu denbora onarekin, lanak zeñien aisa agiten diren; Apirilla (Jorrailla) oso pozoitsu joan zen. Etzuten gure alor-soroak asko irabazi. Aize otzak erre zun Martxoan (Epailla) atera zuen belar mutur guztia; Itxasoaren nahasaldi ura igaro-ta ondoreko illabete guztia ezin konpondu pasatu da denbora. Maiatzaren lendabiziko egunak berdintsuak izan dira. Itz batean, oso "kalit-re" txarrekoa egon da denbora. Ta tardean gure nekazari maiteak, noiz ondoko duen denbora, espe-roan estu ta larri. Baño gure Jaungoikoak iñor galtzera ezbal-tu utzitzen. Alaxen kanpo-giro eta langiro egun iñoiz ezbezelakoak eman dizkigu, ondorengo aste orre-tan. Beñere ikusi izan ez dugun gogo berex batekin bezala arritu dira alor lanetan. Batzuetan gai-ñeratu, bestean lurra irauli, ara-koan a'perra pasatu, onaterakoan azia nahasi. Yoan den aste orretan lan asko egin da erizioa prestatzen eta azia botatzen.

Jainkoak digula, ba, urte on bat gure eta gure etxeko bear guztiak ornitzeko eta gelditzen zaiguna ez-dutenei emateko.

## GORRITI

### GORRITTIK MARTXOAK (EPAILLA) OGEITAMAR

Ezbada gaur baño obia ez da izugarria.

Elurra ari du zapla-zapla.

Gorritiko kontu gutxi azaltzen da **Prinzipe de Viana** ontanilenbizi asiko naiz errian ari diran aurre-rapenak esaten. Jendia gogor ari da lan berri oietan, belar berdeak sartzeko zuloak egiten, baita asi dira ukulliak egiten ere. Antxen ibiltzen da gure Artzai Jauna mutil gazteai lana agintzen, izan gaitzen bada artzai on batekin ar-talde txit ona.

Baita ere emen izan ditugu sen-dagille Koldobika Gofñi Jauna be-re emazteekin egun batzuek iga-rotzen, baño elurra asi zanian lais-ter igesi egin dute. Berriz ere lais-ter etorriko dira'a uste dugu, ala-xe nai ere erri guztiak, ezpaizaigu iduritzen bera emen egon ezkerro ilko geranik.

Orra nik asiera eman eta orain beste batzuek segi dezatela. Agur beste bat arte.

"GORRITIAK BAT"



## SUNBILLA

—Aurteho Otsailako 5'an Ayun tamientoko konzejal-berritzea izan zen. Changoneko Franziskoak, Behobiko Ramonek eta Telereko Prudenziok, sei urte egin ondoan, lekua utzi diote Istolako Agustife-ri, Be'ukobordako Antoniori, eta Primoneko Marianori. Sei urte aue-tan konzejal egondu direnei eske-rrak eman bearra dauzkagu erria-ren alde egin duten lanagatik; eta sartu diren berrieri zorionak eman, erriaren alde lana egiteko deseua dutelako.

—Martxoko azkeneko astian GU-RELESA'k izandu zuan bere bille-ra Donostian, eta emengo sozioak arara yoan ziren. Egun artan Jun-tarako sei lagun autatu zituten. eta oietan berexi izan zan bat. Igantzikoa da. Erratan zutenek GURELESA'ko billeran euskeraz aritzen omen dira; eta eskribitu ta leitu egiten diren Aktak euskeraz egiten omen dira; nunbait aintzin ortan sozioak, euskeraz egiteko eskatu zutelako.

—Urrengo illabetean COPELE-CHE'k izandu zuan bere urteko bil-lera. Emengo sozioak yoan ziren Iruñera, eta ango gora-berak iku-si ondoan pozik etorri ziran.

—Sunbillako arrai-fabrika be-rria Apirillako 5'an lanean asi zan. Aurten itsasotik "antxoak" gutti ekarri dute, denbora otzak yoan direlako.

Antxoak ekartzean ur-gatzakin dauden kupel antzeko batzuetara botatzen dute. Andik berriz maiara eraman, buru-errayak kendu ta bere puntuan dagon ur-gatzan jar-tzen dute; gero bere garayan, sal-du bear duten latatan sartzeko.

—Aurtan goiz aski asi dira in-guruko erriko bestak. Gaztedia bortsatu gabe, arin-arin yoan zai-gu Iruritako bestetara; batzuek arrats-aldia pasa, bertzeak berriz bere biziko bear duten laguna bi-latzeko asmoakin.

Yoan den urtean oso belar ede-rrak izan ziran, eta belarrak idor-tzeko San Fermiñak arte denbora agitz onak yuan ziren. Aurten be-lar franko ederrak dira, naiz ez izan igaz bezelakoak; San Tibur-ziotan ikusi bear aurtengo bela-rrak nolakoak diran.

BIDASOA

## BERRIZ ERE MEZAN ALDAKETAK?

Orain dela bi urte Martxoko 7'an aldaketa batzuek Meza Santuan izandu genituan. Aldaketa aundiena, ia Meza geiena alderdi bako-txan bere izkuntzan egitea izandu zan, ta ez lenago bezala latinez.

Al ere «Sanctus'etik» asi ta «Aita gurea» arte oraindik latinez egiten da. ati orreri KANON deitzen zaio.

Baño aurtengo San Pedrotik bertze aldaketak Meza Santuan izan-go ditugu, ta gañera KANON osoa alderdi bako-txan bere izkuntzan egiten da itzulpenak prestatzen diren bezin laister.

Aunitzek uste dute Espaiñan erdaldunak bakarrik izango ditutela aldaketa oye; bañan Erromatik ez dute orrelako berexkuntzik egin.

Ta euskeraz zer? Begira, Donostiako Seminarioan astero biltzen da apez sail bat bizpauru urte auetan Mezako zatiak euskeraz jartze-ko, eta KANON euskerara itzultzen ote ziran yakin nai ta, Donostiako Seminarioko apez batekin egondu nintzan eta alkar-izketa au izan nuan:

—KANON deitzen den zati ori euskeraz jartzen ari zerate?

—Bai, nola ez?

—Egiñen dezute San Pedro-tako?

—Erdaraz aterako den egunerako nai genuke Gipuzkuko erri-etan KANON euskeraz izan dezaten. Egia, izan ditek itz banaka batzuek ondotik aldatu bearra izatea; baño oso itz gutxi izanen dira.

—KANON euskerara itzultzea zalla egiten al zaitzue?

—Uste baño zallagoa. Askotan latinez esan oi dugun KANON, bear bezala ulertu (konpreintu) gabe aritu gera.

—Yakintsuak KANON'eri buruz lan egiñik bai al ditute?

—Bai, eta guk lan oietako bat fransesez egiña, eta bestea er-deraz egiña gure aurrean ditugu KANON euskeraz jartzean. Gañera Gipuzkuko apez guztiei konsulta bat egin nai genuke KANON'ko itz edo zati batzuetaz.

—KANON'eko zati batzuek kantatuko al omen dira. Aditu izandu dut ez dela munduan mintzaerik, euskera bezin kantagarririk. Euskeraz egiten ari zeraten KANON, kantagarria izanen ote da?

—Beste elburu, edo xede au iritxi nai genuke: KANON kantagarria izan dedin. Au da, itzulpena izan dedilla alik eta atsegingarriena kantatzeko, naiz euskera berez kantagarria izan.

—Bizkayan zer bait egiten ari dira?

—Euskeraz itzulpenak egiteko bada an komisio bat, eta aspaldi- eskatu zigun komisio onek Donostian astero egiten giñun lana, aiei bialtzeko. Ta alaxe egiten degu KANON'ko lana onekin ere.

—Zer diote Naparran?

—Naparrako apez batzuek azkeneko illabete auetan bispairu aldiz gurekin lan egitera etorri dira.

—KANON erdaraz bereala aterako dute?

—Ez duk uste. Badakizu Ameriketan erdaraz mintzatzen diren al-derdiko Gotzaiak Opezpikua CELAM deitzen den elkarte bat badu- teta; eta Espaiñako komisioak eta CELAM'enak bien artean texto bat atera nai dute, eta iduritzen zait garagarrikan ekainan ez dutela oraindik argitaratuko.

Elkar-izketa au izan eta amabost egunen buruan Bayonako Litur-jiari buruz arin dan komisioa apez batekin egondu nintzan eta gal- detu nion:

—KANON fransesez prestatuko dute San Pedrotako?

—Lanean ari dira; baño San Pedrotako ez da prest izanen. Erro- matik eskatu dute izkuntza bat mintzatzen den alderdi guztietan, Li- turji-gauzetako texto bat izan dezatela. Eta orregatik Franzi, Canada, Afrika eta fransesez mintzatzen diren bertze alderdiko oien Apezpi- kuen Konferetzi ta Liturjiako komisioak elkarren artean texto bat ateratzeko artu-emanak baditute. Ta artu-eman oiek gibelatuko (atze- ratuko) dute KANON fransesez ateratzea.

—Alde batetik Erromatik eskatzen dute izkuntza bat mintzatzen direnak texto bat izatea. Ta bertze aldetik, diote batzuek, eziñezko gauza dela Euskalerrri guztian texto bat izatea. Zuri zer iduritzen zaizu?


—Badakit texto bat izatea zalla dela. Igaz orrelako lan gisakoa egin giñun, eta eziñazko lana ez dela ikusi ere bai.

—Orduan euskeraz mintzatzen geran guztientzat KANON bat izanen da?

—KANON euskaldun guztientzat alik eta berdiñena ateratzen, sa- yatzen ari gera. Eta bertze gañerako gauzak, gero ikusiko dira.

IPARRALDE

# K I R O L A K



## AIZKOLARIAK

Yoan den Mayatzaren 14'ean Do- nostiko Anoetako zelaian Euskale- rriko aizkolarien Xapelgoa yokatu zuten. Sei aizkolari zein-geiagoka, sei mutil euskaldun lerro lerro ber- ren indarrak eta ahalmenak eraku- sirik denak garaipena erdietsi beha- rrez. Lau nafartar: Berekoetxea, Latasa, Astibia, eta Zestau. Bi gi- puzkoar: Zeberio eta Arriya. Beren egin-beharrak auxe zen:

Bakotzak iru kana-erdiko, iru 72 ontzako ta bertze iru 80 ontako en- bor moztu, denak batean asita lan guzia nork lasterrago egin.

Asmentatik Astibia leitzarrak ain- tzinaldia artu zuen bertzeak ere be- re gibeletik urbil urbil yarraikitzen ziotela, gero azkenengo egurrean lau aizkolari berdintsu zabilzen eta lau oiek beren azkenengo enborrean eta aundienegañera. Astibia ler eginik, ito urren eta indargabeturik lurrera erori ta xutik egoteko ere gauza etzela bere lana ezin akitu- ztzi zuen. Bertzeak ere larri zabi- lzen, Latasak eta Berekoetxeak aiz- koraren kiderra autsi eta neke au- diarekin, Arriya ere bai ler egiña, bertze biek gibelasko zoazin eta et- zuten ainbertze nekerek nabari. Az- kenean Berekoetxea gorritarra non- baitetik indarra aterata izan zen garalle bederatzit enborrak 53'29 minutoz mozturik. Latasa bigarren eta urbil 53'34 minutoz. Irugarren Arriya 55'11 minutoz. Laugarren Zeberio 57'58'tan eta azkenik Zes- tau 71'15'tan.

Aizkolariak suerte txarra izan zu- ten, denbora sapa eta zakar zagon eta gizonen biziak arrixkuan ibili ziren. Astibiari gertatu zitzaiona ne- gargarria izan zen, beti aintzinean zabilen garaipena eskuan zaukelarik bainan azkenengo enborrean eta be- re lana ea akitu urren zaukelarik ler eginda eta arras desegina lurre- ra erori zen. Bertze aizkolariak ere larri ibiliak dira, an etzen yos- tetik. Berekoetxea gorritarra Txapeldun. Zorionak.

Aizkolari oien berrokaldia yen- deari etzaio aisa atzenduko, gudu-

—Arritzekoa! Nereak lau edo bost sartzen ditu aldian.

—Seiren bat esatekotan negon ni. Denak berdinak.

—Ardoa utzi duzula?

—Bai.

—Eta zerengatik?

—Amari-arebarengatik. Moxkortu ta bi ikusten bai nituen...

Elizan. — Apeza sermonian ari da: «San Pedrok esan zion San Juan- i; eta San Juanek esan zion Jauna- ri...» Etzuen ezer ateratzen eta jen- dea aspertzen ari.

Gizon batek oi egiten dio alki- tatik: —Bota, gizona, bota! Zer esan zion? Eta ondoan bai zegon apezaren ama:

—Joan adi amalau urtez istudia- tzeraz eta jakingo duk orrek bezala.

Mozkorak neskato gazte bati:

—Zartain beltz! Itsusi!

Besteak:

—A mozkor zarra! Nork esango eta ik!

—Obe uke nerea bezala biarko joanik!



kaldi ori egundano gertatu ez be- zalakoa izan baita.

## PILOTARIAK

Telebista dela medio Espaiñan mi- loika dira Azkarate ta Atanoren

arteko gudukaldia ikusi dutenak. Buruz buruko Txapelketako Azken partidak izan du errekiste, «Anoe- ta» mukurrurano betea eta trabesak Atanoren alde. Partidaren asmentatik Atano'k aintzinaldia arturik gi- sa ortan aisa zoaien 12-5 bere alde zuelarik, gero eskuñeko eskua arras minberatu zitzaion baño alare 18 garren tantorano aintzinean yoan zen Azkarate urbil urbil yarraiki- tzen ziolarik. Orduan trabesak biz- kaitarraren alde itzulikatu ziren eta elorriotarra indarrean baizagon, az- kenean 18 garren tanto ortan ber- dindu eta gero partida irabazi 22- 18, Txapela bereganaturik. Azkarate Txapeldun. Zorionak. Azkarate'k aurtengoarekin seigarren aldian du Espaiñako Txapeldun ateraia dela, zerbaitengatik izanen da. Partida ikaragarria izan da, 90 minuto iraun du eta bien artean 334 yoaldi eman diote pilotari. Yendeak pozik ikusi- ko luke berriz partida au bera, eta Atanori eskuak irauten balioeteke nork daki zer gertatuko litzaken, baño Azkarate'k ezta aisa amor emanen gizon fierra ta bizkorra bai- ta. Ikusiko dugu urrengoa.

## "OSASUNA", aurrera!



Gaur Iruñeko «Osasuna» Futbol talde edo ekipoa gure euskal illero- ko onen orrietara nai dugu ekarri. Or goiko erretratoan dauden fubola- riak «Osasuna» taldea osotutzen (osatzen) duten gizonak dira. «Osa- suna» Nafarroko futbol talde edo ekiporik oberena da, ekipoetan na- gusia eta napar guziok aunitz mai- te duguna.

Aurtengo Txapelketetan ongi xa- mar gelditu da alde batetik ikusi- rik eta batzuen iritiz, baño beste alde batetik ikusten baldin bada, eta geienen iduripen eta uste dena, ezin ukatu dezakena txarki xamar yokatu da eta azkenean laugarren tokian geratu bada ere, jo-muga na- gusia, xede aundia, au da Bigarren Maillako Saillatik Lenengo Maillara igotzea, altxatzeak beste urte baten zai «Osasuna» utzi du, eta guk uste dugu «Osasuna» Fubolaren Le- nengo Maillan egon bear du Espai- ñako Futbol-multzorik oberenekin elkarri yokatzeko.

Azkeneko Norgeiagoketan, aur- tangoan, lenbiziko partiduetan oso

aula egon zen gure «Osasuna», eta bere Erakasle zen Garzia Andoain yaunak bere lekua utzi bear izan zion beste Erakasle bateri, bigarren Erakasle au aurkitu arteko bitar- tekoan Iruñeko gazte den Mikel Blankok bere esku «osasunatarren» saioaldiak artu zittun eta iru edo lau partiduetan makur zegoena, arras ongi, «xarmanki» (baztanda- rrek erraten duten bezelaxe) zuden- du zuen, eta «Osasunak» berriro partidua garaitzen, irabazten asi zen. Zoritxarrez Mikel Blankok fu- bolari profesionalak irakasteko bai- menik etzuelakoz eta Madrileko Martialay yaunari utzi zion irakas- kintza.

Ziur gaude asieratik, asmentatik, «Osasunak» Erakasle ona izan banu beste ollar batek kukurruku ganta- tu izan lukela, eta orain Lenengo Maillan egonen litzakela; ustean gaude, alaz ere, datorren denboral- dian gure «Osasuna» jatorria Biga- rren Maillako Txapelduna izanen dela. Aurrera, bada, «Osasuna».

GURATZ

Etzeko-andreak neskatoari:

—Zer egin diazu? Karta zuzenbi- derik gabe bota!

Eta serbitzariak:

—Uste nuen nik ez jakiteatik egin zinuela...

—Ilabete ontan ehun peseta gu- txiango argian!

—Eta ori... nola? —esaten dio aldemenekoak— Nik ere egin neza- ke...

—Bai, eta norengana joan orduan telebisio ikustera?

Bi gizon tren batean. Bat itzultze- ko asmoan, eta bestea an gelditze- kotan.

Zulatzalea joan ondoan nun esa- ten duen bigarrenak:

—Bayaki zer sartu deatan orri?

—Billete falsoren bat...

—Ez motel! Askoz geiago. Ez bu- eltatu behar eta, juan-etorriko bille- tea!

Sevilla'n:

Au otza! —esaten du eskualdu- nak. Gure mendiak direla otzak!? Emen ere ormatzen da ura!



—Bai; erantzuten dio andaluzak. Baño gutxitan gertatzen da. Emen- go ura ez dago otzarekin oiturik eta, gero, edozein gauzaikin gogor- tzen!!

Nekazari bat bere astoarekin merkatura dijoa. Alako batez kon- turatu da zama geiegi duela astoak eta kupiturik.

—Lagunduko haut! —esaten dio. Enik nahi bidean lertzea...

Karga guzia bizkar gainean artu eta nun jartzen den astoan.

—Arre burro!!! Gaur ezin duka- na biarko!

Nere andreak ez dizu sekula ge- zur bat esango!